



Iturria: *El nacimiento del periodismo en lengua vasca: la relación de Bayona de 1766*, Javier Díaz Noci. Euskonews & Media 78.zbk (2000/5/12-19)  
<http://www.euskonews.com/0078zbk/gaia7801es.html>

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnonimErrelazionea.htm>

**JAUN DAUPHIN  
ZENAREN ERITASUNeko  
ZIRKONSTANZIA BEREZIEN  
ERRELAZIONEA**

**Anonimoa**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

# **JAUN DAUPHIN ZENAREN ERITASUNEKO ZIRKONSTANZIA BEREZIEN ERRELAZIONEA**

**Haren Kofesorak argitarat emana**

Baionan

FAUVET-DUHART, Inprimatzaillea baithan,  
Pont-Majour-ko Karrikan, 1766

Ene deseinua ez da, ageri den bezala, Jaun Dauphinaren historia iskribatzea. Bizi, nazionearentzat hain ederraren, eta errelijioa hanbat ukhitzen duenaren gauzen ezagut-arazteko arthar uzten dut bertze zenbaitentzat. Kontentatuko naiz explikatzeaz, manera simple eta lano batean, haren azken zirkonstanzia bereziak. Bethi ere ahuendatuko dudan Printze hark ohoratu izan nau bere fidanziaz. Haren azken suspiren lekuko kausitu naiz. Haren familia errespetagarriaren konsolamenduarentzat, enea berarentzat, eta bereziki publikoaren edifikazionearentzat, banoha aipatzerat nigarrez bustitzen dudan iskribu huntan neorrek ikhusteko zoriona izatu dudan gauzen xehetasun exenpluzkoa.

Errelazione huntan sarthu gabe, izan bekit zilhegi erratea, errelijio-nearen ohoretan, eta munduko zuhur direlako batzuen ahalkeria handitan, Jaun Dauphinaren eritasunean hanbat distiatu duten sentimendu jeneros hek eman izan zitzaion edukazione giriztinozko baten fruitu dohatsu batzuek zirela; banitateaz eta errespetu humanoaz gorago zen debozione solido batek zakhartzkeienak. Edukazioe hura etzen behinere gezurtatu haren baithan; aitzitik, graziak, adinaren eredura, perfekzionatuz eraman izan zuen: erragun oraiño, egun orozko liburu sainduen



irakhurtzeak, orobat fede bizi eta humil batek etzutela parte guti izan berthute miragarri hartan. Etzuen egunik uzten iragaterat Jesus gurutzefikatuaren oinetan mediatu gabe Ebanjelioko egiak eta maximo sailduak. Bai, egun guzietan, othoitzari ematen zioen denboraren parte on bat, bere moldetzat hartu izan zuen San Louis, bertze orduz, Franzian erreginatua izan duen Errege handi hura: hari jarraikitzeke, arthoski erraten zuen Parisko brebriarioaren ofizio handia. Hortakotz, khentzen ziotzkoten munduko barriadurari eta libertizione funts-gabekoei ezertzio saildu hari ematen ziotzon moment eta orenak. Etzen hargatik gutiago aplikatzen haren herrunkari zaizkon ezagutzen ardiesterat. Hari hurbiltzeke dohatsutasuna zutenek ahal dakite Printze bakharrak gerthutzen ohi direla hura bezain argituak.

Ikhusten zuen Jaun Dauphinak errelizjioea, bere hedadura guzian. Haren alderat zuen errespetuari partean eman dakiokenik, zer kausi? Min minean, sentitzen zituen errelizjioek gaitztaginen partetik izaten zituen laido eta zauriak. Iduri ere du hari erreparazione edo konpexazione bat bezala egin nahi zioela bere eginbide publiko eta partikularren bethetzeke seiñalatzen zuen atenzione eta kharmiragarriaz. Nor da ez dakienik Elizari zakharkeien amodioa, eta hunen dezisionen alderako zuen sumisio oso hura? Seguratu nola baitzen sakramenduak zirela graziazko ithurburu abundant batzuk, eta sailduteke bezala, halaber, saildutasunean irauteke eta aitzinatzeke moienik ezin faltatuzkoenak, Printze debot hunek eman izan zioen bere buruari erregelatzat kofesatzea ilhabete guzietan, orobat komuniatzea kofesorak digne zaukan guzian: hartarat dispostzen zen konzienziaren examina hertsu eta xehe batez, zeinaren zorrotzasunari ez baitzitzaioren deus ere eskapatzen. Gaitz ahal da imajinatzea nihork egundaino ekharri ahal dukeiela artha gehiago ezagutzekotzat bere bihotza eta giriztinotasunaren egiazko izpirituak galdetzen tuen eginbide guziak. Hulako karakteretako Printze batek baitezpada behar zuen izan seme errespektuskoena [sic] eta sumetituena; espos samurren eta leihalena; aitarik hoberena, anaiarik nahikarazkoena, eta finean, nausi justiziaz, arraitasunaz, eta ontasunaz bethena.

Franzia osoa ikharan zagoen denboran Printze hain konpli baten egunentzat, Jaun Dauphinak entzuten du, batere kantitu gabe, bere estatuaren hirriskua. Ordudanik deklaritzen du; *ez duela, Iainkoari esker, biziaz alderako iaiduririk sentitzen; ez dela egundaino izan lilluratu bere sortzeke deitzen zuen thronuaren distiaduraz, ez dioelakotz, behin ere behatu datxazkon eginbide ikharagarrien eta inguratzen duten perilen partetik baizen. Nahi lukeiela arima*

*hobeago bat izan; bainan Iauaren miserikordia infinituetan ezartzen zuela bere fidanzia guzia.*

Hazilaren hamabian, arratseko hameka orenen gainerat, izan zuen estresa batek haren bizientzat beldur-arazirik, aditzerat eman nioen on zaitekela biharamuneko prepara zadin azken sakramenduaren errebitzerat. *Ez dut (ihardetsi izan zautan) deus hobeagorik galdetzen. Ala, ordean ungi denbora guti gelditzen baitzait horlako akzione handi baterat dispostzekotzat!* Etzuen, bizkitartean, izan behar administratua eguerditan baitzen, eta kofesatua zen bezperan: galdegin zuen a propos zenez errebitzea anonzioa biatiko sailduarekin batean, eta ea diozesako ritualak horla markatzen zuen. Konprenitu zuenektz bazukeiela satisfakzione hori, desiratu izan zuen, denbora berean, azken sakramendua, *beldurrez, zioelarik, menturaz eman diezatedan extremitatean eta ezagutza oso batekin errebitzeke gai izanen ez naitekeenean.* Ordu berean, eman zitzaion othoitzari kharrik handienarekin eta nahi zuen entreteni nezan meditazionearen moldean, azken sakramenduen hartzeke nezesario ziren dispostzionez, eta arima bati ekhartzen diotzoten grazia partikularrez.

Zer ikhusgarri Jaun Dauphinaren administrazionean! Errege eta haren familia lekhuako desolazionean! Gorthe guzia nigarretan! auhen, suspira, marraskak, alde guzietarik, haren gelan! Eta hiltzen hari den Printzea datza bakharrik trankil eta deskantsu! Fermutasuna, bakhea, ezititasuna, debozionerik biziena, hauk guziak seinale dire haren bisaian. Huntarainokoan zohan, haren izpirituko atzartasuna, non ezagut-arazi baitzaien Jaun Aumonier handiari, orduko doloreak ematen zioen trublearen ariaz, gerthatu zitzaioen huts bat, zeina baitzen olio sailduaren gantzadura bat eskas egitea. Odoleko Printzeak eta gainerako Jaun handiak erretiratu izan ziren doloreari bezala admirazioneari bere buruak osoki utziak.

Zeremonia saildu horren ondoan, Printzeak nahi izan zuen meza entzun eskerren emateke. *Ez nuen uzte, erran zautan, azken sakramenduen errebitzeke hanbat konsolamendu zakharkeiela. Jainkoak moment huntan bozkario hain ezta senti-arazten daut non ez baitut, ene bizian, deus ere holakorik frogatu.* Ezin aski kontenpla nezakeien Iainkoaren amodioaren alderat agertzen zuen ezagutzazko gaididura: halarik ere, konsideraturik, lau oren bethetz, debozionateari iarria zagoela, beraz nekhatua ahal zaitekeiela, errepresentatu izan nioen ordu zuela pausatzeke. Haren errepusta izan tzen: *Ez naiz batere fatigatu, Iainkoak sustengatu izan du ene izpiritua.*



Erretiratu baino lehen exhortatu izan nuen bere bihotza baltsatzeaz erresuma guzian egiten hari ziren othoitzekin batean, zerutik ardietsteko xedez, haren arimaren salbamenduaz landan, gehien ukhitzen gintuen gauza; ihardetsi zautan berehala bere aire maitagarriarekin: *Duda gabe, ene konserbazioea erran nahi duzu. Ah! Jauna, erran nioen, ikhusia da, eta nola daiteke bertzela! Bakharra ahal zare ez dakizuna zein maite eta nezesario zaitugun. Horren gainean, moment bat trikaturik erran zautan Printzeak: Permeti diezadazu kontenta nadin Jainkoari galdetzeaz bakharririk haren borondatea konpli dadin ene baithar.* kontinuatzen zuela, ala haren pentsamenduak guretarik ungi diferentak baitire, eta ekharri zituen eskripturako haitz hauk: *Cogitationes meae non sunt cogitationes vestrae* Mututzen nauzu, erran nioen, eta egiaz, zure dispozioea den perfetena da, beraz ez dut haren guttizerat egin nahi, ez daiket ere. Halarik, badirudi Erregeren familiaren damuaz eta nazione osoaren botuez ukhitua, Jaun Dauphinak uzte izatu zuela gomendatu nioena egin zezakela. Ezen erran zautan biharamunean: *Ez diezadazu gehiago galde othoitz egin dezadan ene konserbazioearentzat, eza gutzen dut grazia horren eskatzeak arima idortzen dautala, eta debekatzen nauela Jainkoarengat altxatetik salbamenduko grazia xoilak galdetzen diotzadanean frogatzen dudak khar berarekin.* Ageri da, erran nioen orduan, zure burua Jaunaren eskuetar horrela osoki largatzea, hark zure gainean dituen deseinuen arabera dela; etzaitut beraz gehiago exhortatzen othoitz egiterat zure konserbazioearentzat. Guri dauku Jainkoaren nahien adoratzea, zuretzat haren miserikordien eta guretzat haren justiziaren efetuen idurikitzea.

Denbora hartan, Jaun Dauphinak egin zuen bere testamenta, egiteko tenporalak erregelatu ondoan Jainkoaren gauzez baizik ez gehiago okupatzekotan. Bazirurien [sic] egunetik egunerat haren kharra debozio-neko gauzetan doblatuz zihoala. Zer pena eztzuen sentitu noiz ere gaitz luze bateko ahidurek eman izan baitzuten, bertze orduz bezala, irakurtze ispiritualen egitetik ahalez kanpoan. Haren berthuteari bere berthuteaz ohore egiten zioen Andre Dauphina lagun harturik, erraten zuen han artean, ofizio dibinoa. Jainko handia! zergatik hain guti baizik etzuen irau behar hain unione perfetak? Ala ukhigarria baitzen eta exenpluzkoal. Ez, egundaino samurtasunak eta errelijioeak, eztzitzen iuntatu bi arima hekienak ekharri baino hobekiago zaozkonak. Hargatik, atsegin handienekin, mintzatzen zen Jaun Dauphin Printzesa animotsu hunenganik zituen zelo eta bihotz beratasunaren marka kontinokoez. Noiz ere, libertate faltaz, ikusterat guatetik gelditu baitzitzaioen Printzesa, egorri zioen,

hainitz aldiz, Verdungo Aphispikua zertan othe zen berrien jakiterat; eta bere azken momentuetan, Jainkoari egin ziotzan grazia bereziez eskerren bihurtzean, eztzuen ahantzi espos berthutos, alde guziz, errespetagarri baten emateaz egin zioena.

Printze hunek, egun guziez, bereganat deitzen ninduen oren erdi batez salbamenduko egien gainean mintza nindakiontzat: gehien ukhitzen zuten gauzak, berriz erran arazten zauzkidan hekien sunsuan hobekiago sartzeko xedez; ziolarik; *egin ahalean ene baithan finkatzen ditut erraten darozkidatzunak, gero hetaz, noizetik noizera, orhoitzeko eta ene meditazioe laburren hekin gainean egiteko. Ikhusia da naizen estatuan ezin egin dezakedala meditazioe segiturik. Ez naiz gehiago neorri gai irakurtzeko eta egundaino ezin egin naiz bertzei, ene aintzinean, irakur-arazterat.*

Diozesako rituelak galdetzen duen denbora iragan zeneko, Jaun Dauphinak desiratu zuen, bere baitharik, bigarren aldikotz eman ziozoten Jaun Handia, orduan hobekiago zelarik arren. Jaun Aumonier handiak ekharri zioen, egun guziaz, haren apartimenduan erraten zen mezatik lek-hora.

doaren hamabortzetik hamaseirako gaua hainitz izan zen txarra. Printzeak erakharri ninduen goizeko sei orenetan, eta nahi izan zuen iakin eneganik zer zioten haren estatuaz. A! Jauna, ihardetsi nioen bortxatua naiz zuri aithortzerat, mirikuek etsitu bezala dute zutaz; Jainkoaren miserikordia infinituetan dugu gure esperantza guzia; agian eroriko dela aldaren oinetan ahuzpez nigarretan dagoen nazione guziaren othoitzetarat. *Lagun nazazu, erraten zautan, ungi preparatzen errebitzerat ene Kreatzaillea eta ene Salbatzaillea, bere amodio mugari gabeak eneganat dakharkena, zeiña laster ikhusiko baitut ene iuie soberanoa bezala: Erreflekzioe hau, zioen, latzgarria da: halarik ere, ez du batere gutitzen haren miserikordian dudak fidanzia bizia.* Goiztiri osoa akzioe saindu hartarat preparatzeko denbora bat izan zen. Hameka orenez inguruan, Jaun Aumonier handiak eman izan zuen meza Printzearen gelan, eta administratu izan zioen biatiko saindua, zeiña errebitu baitzuen debozioe handienekin. Ordudanik, arbuiatu izan zituen erresuma guzian, haren konserbazioearentzat egiten ziren othoitzek sor-arazten zituzten esperantza suerte guziak, eta etzuen nahi entzun mintzatzen bere eternitateaz baizik. Azteazkenean, arratseko bortz orenetan, Jaun Dauphinak erran zautan beharritat, erregeren familia, orduan gelan aurkhitzen zenak, ez aditzeko gisa, nahi lukeela erran niotzan hagoniako othoitzak; errepresentatu izan nioen etzela oraino hartan, eta mugagabe asaldura kruellena ematea izanen zela. *Ez diezadazula errefusa, zioen,*



*grazia hori: othoitz hek hain dire ederrak, deboziona inspiratzen derautet.* Hortik hartzeko da jadanik, bere partikularrean erran zituzkeiela. Erori nintzen beraz haren nahirat; ordean, kondizionerekin bi biak izanen ginela. Sei orenetan, erregeren familia athera izan zen benedikzioearen hartzerat; eta berehala Printzeak manatu izan zituen gelan gelditu ziren guziak ilkhitzeaz, eta gu biak bakharrrik utzteaz. Othoitz hauk egin niotzan, ahalaz klarki. Hulako maneraz segitzen zituen non baitzidurien Jainkoaganat goan nahizko hirritsaz ilkhitzen bezala zela bere gorphutzetik, eta hagarandua zagoela bere azken orenaren minez. Etziren hain laster akhabatu othoitzak, non Errege bere familiarekin sarthu izan baitzen. Errezibitu izan zituen bere egundainoko humore allegerarekin; eta nihori guti gogoratuko zitzaion bere arima berak exhortaturik heldu zela gorphutzetik atheratzerat zeruaren galtzarrerat hegaldatzekotzat.

Ortzegunean, eguerdirat, bazirudien hagoniarat zihoala, hargatik erran zuen nahi zukeiela oraiño entzun meza saindua, zioelarik, azken aldikotz izanen zela: bihotza sustatzen zioen [k]harrak sustengatu izan zuen haren izpirituko atenez; eta sakrifizio[ko] denbora guzian eztzituenu begiak apartatu aldarearen gainetik.

Gaitza goratuz zihoakon huntarainokoa, non mirikuek ez baitzuten uste arrats phala ardiets ahal zezakela. Printze hunek ikhusirik azken mugarat hurbiltzen hari zela, lehiatzen tzen khar eta fede handienarekin izaterat sentimendurik biziak, nahiz salbatzaile adoragarri har gure salbatzekotzat obratu izan dituen misterio ezin erranezkoen gainean; nahiz, finean, Jainkoa bere lorian ikhusteko zorionaren gainean.

Iskriturako hitz gehien bihotza ukhitzen ziotenak hainitz alditarainokoa berriz erranazten ziotzon exhortatzaileari. Galdetu izan nioen: ea bada Jaunaren borondatea haren baithan konpli zadin bethi desiratzen zuenez bakharrrik? Mobimendu saindu batekin, ihardetis zautan: *Zituzkelarik bere eskuko milla bizi eta milla osasun, guziak gogotik sakrifika liozokela Jainkoa ikhusteko, eta hartaz gozatzeko senti zuen lehia khartsuari: ez dut, kontinuatzen zuen, deusik egundaiño hanbat desiratu nola haren ezagutzea bere izate guzian: nonbait ungi handia eta ungi miragarria behar da bere perfekzioe guzien hedaduran.*

Egoten bainintzen aphur bat ixilik, deitzen ninduen bereganat eta erraten: *mintza zakizkit enen Jainkoaz, hortan konsolamendu handi bat kausitzen dut.*

Hagoniako oinhazen eta haren ingurutan zaudezen auhen eta marrasken erdian, Jaun Dauphinak deusik etzuen galtzen bere animo eta

trankiltasunetik. Hain zen ohitua gauza graziosen erraten non uzte izan baitzuen bereganat erakharri behar zituela gelako lehenbiziko aitoren semeak, eta heiei erakuzterat eman harentzat hartu zituzten arthen alderako bere bihurkundera. Galdegin zituen gero bere Jaun Menin (bere segidako ofiziale batzuk): *Hurbil zaitzte, Jaunak, erraten zioten aire arraienarekin, hurbil zaitzte ikhus zaitzadanentzat guziak. Eskerrak darozkitzuet hartu tutzuen penez eta guziz, ekharri dautazuen amudioaz: ezagutzaz betha naiz guziez: eman dautzuet batzutan khexatzeko bidea, sobera iduriki-araziz, barkhamendu hartaz galdetzen dautzuet. Segur naiz barkhatzen darotazuela bihotz onez: adioz, Jaunak, othoi bethi orhoit zaitzte nitaz.* Handik ondoan, erremarkatu izan zuen Prinze Turenne edaterat ematen hari zitzaiola: behatu izan zioen, eta erran: *Bada posible, Turenne Jauna, ez baidautzut oraiño fitsik erran! Grazia txarra dut, ezen ukhitua naiz zure arthaz; esker hainitz darotzut.* Herrex da konprenitza hulako hitz samurren aditzailek etziotela ihardesten baizik hau auhen eta nigarrez.

Jaun Dauphinak bortxa egiñen zioen bere samurtasunari ikhustekotzat bere ume Printzeak eta heiei mintzatzekotzat azken aldikotz; ordean ahalak eskaturik, kontentatu izan zen erakhartzeaz hekien Jaun Gobernadore. *Jaun Vauguyon, erran zioen, kargatzen zaitut ene haurrei erratez desiratzen diotedala dohatsutasun eta benedikzioe suerte guziak:* hitz hautan arthiki zuen has gorapen min bat, eta erran zautan: *A! ezin segi dezaket, akhaba zazu, Jauna, eta erratzu, ene izenean, konbenitu garenak.* Orduan, hasi nintzen hula mintzaten: Jaun Dauphinak guzien gainetik gomendatzen diote Printze gaztei Jainkoaren beldurra eta erreljioearen amodioa; gomendatzen diote gehiago probexatzeaz ematen diozuten edukazioe onaz; izateaz Erregeren alderat sumisionerik eta errespekturik handiena; begiratzeaz, bere bizi guzian, Madama Dauphinarentzat halako ama errespektagarri bati zor diotzkoten obedientia, eta fidanzia. Vauguyon Duke Jaunak Printzearen eskua hartu eta musu eman zioen bustitzen zuelarik bere nigarrez, eta erretiratu izantzen bere dolorearen gainidura nekez jasaten zuela.

Jaun Dauphinak erran izan zioen Verdungo Jaun Aphezpikuari, zeña ohoratzen baitzuen bere adiskidetasunaz: *Othoizten zaitut praktikateaz zure karitatea hiltzen hari den baten fagoretan: nazazu exhorta ene Kofesoraren solejitzekotzat.* Jaun hunek akhabatu izan zuenean, eriak erran zioen: *Jaun Aphezpikua, ungi mintzo zare, ala ukhigarria eta sarkhorra baitzard Hartu zioen gero eskua, eta zapatzearekin bere bihotzaren gainean, oraiño, erran zioen: ez bide nauzu utziko.*



Haren bulharrak kargatzen hasi ziren: ezin egin zezaken thurik; halarik, atseginekin hartzen zituen ematen zitzaizkon edariak, zakielarik eztzirela baliatuko baizik haren oinhazen gehiago luzaraztekozat. Denboratik denborara, foltsua mirarazten zioten mirikuei, galdez zaukotelarik deskantsurik handienean haren azken momentua hurbiltzen zenez. Nahi zinduke, Jauna, galdegin izan nioen, Jainkoak labur baletza zure oinhazeak. Ez, ez, ihardetsi zuen berehala, *haren borondatea nahi dut bakharrik. Ez naiz behar unhatu sofritzeaz gure salbatzaileagatik, berak hanbat sofritu duenaz geroz guretzat. Sentitzen tut dolore batzuk bulharretan; baiñan ez da hori deithu behar sofritzea.* Zer exenplu Printze horren baithan! Eritasun luze baten iraupen guzian ez zaio itzultzen errenkurarik ttipiena; zer diot! Ez du ere ematen khexamenduaren ez eta humorearen ganbiamenduzko seinalerik arinean! Bethi eztzi! bethi arri [?!] bethi leheneko bera! sollasean, osasunik handienean izan balitz bezala, bethi orobat allegera.

Aditzerat ematen zioten alde guzietz erresuma osoa othoitz jeneral eta partikular egiten hari zela haren sendatzea galdetzeko zeruari, hankizki ukhitua zela erakuzten zuen, erraten zautalarik egun batez: *Frogatzentut othoitz heien efetuak, ezen Jainkoak grazia ungi bereziak egiten dautzkit, eta ene beldur guzia da ez naizela hetaz aski probetxatzen.* Nola gauza bera erraten baitzioten bere azken momentotan, ikhusi izantzen biltzen zituela gelditzen zitzaizkon indar ondarrak; eta erraten mobimendu saindu batekin altxaturik eskuak eta begiak zerurat; *A! ene bihotz guzietz othoitzten dut Jainkoa erresuma hau bethi sustenga dezan eta ezta bere grazia eta benedikziona abundantenez.* Maiz erreberritzen zioen Jainkoari bere biziaren sakrifizioa, ofriten zioelarik nazione guziarentzat, eta bere gainki Erregeren eta haren familia ohoragarriarentzat; promes eman izan zuen, baldin aski dohatsu bazen, mundu huntarik lekhora, zeruan sartzeko, othoitz eginen zuela gu guzieneztat, eta bereziki gehien maite izan zituenentzat.

Horrela zihoan, baratxe baratxe, akhabatzerat errelijioneko sentimendu garbi eta bizien erdian bizi bat hain baliosa eta hain exenpluzkoa. Ikhusten zuten, Jondoni Paulok dioena, barneko gizona borthitzten eta handitzen bere perfekziona betherat hel zadin arterainokoan, kanpoko gizon flakatur, ez deustatzerat zihoan arabera. Giristino handi hunek gehien gogoan zarabillana zen Jainkoak osoki purifika zezan sofrikarien bidez, hartaz gozatzeko zorionaren izatekotat heriotzetik lekhora. Hargatik ziotzan eskerrak oso konserbatzen zioen ezagutzaz, hartaz balia zadintzat hagoniako memento guzietz: haren behatzeak landatuak zauden

gurutzefikaren gainean, maiz berak hartzen zuen, eta eramaten ezpainerat errekeritzen zuelarik othoi haren azken hatsa errezebi zezan.

Gau erdi mugatsuan, de Luinez daritzan Jaun Kardinaleak eman zion benedikziona, eta heriotze artikuluko perdunantzak. Jaun Dauphinak perdunantza horiek khartsuki desiratu zituen. Erran zioen Jaun Kardinalari: *Gertha zaitekela gau hartan berean egor ziozon norbait iratzartzerat.* Ihardetsi zioen Jaun Kardinaleak etzela haren aldetik apartatuko. Ezagutza handi bat zuen Printzeak Elizako buruzagi hunen eta Jaun Aumonier handiaren aldetikako artha guzietz, zeinek garaitu izan baitzuten bere dolorearen min guzia exhortarik ukhigarrienak hari egitekotzat. Printze hunek konsolamendu handi bati bezala behatu zioen oraiño Parisko Jaun Arxapezpikua bere eritasunean, aldi diferentez, ikhusteari, eta errezebitzeari haren benedikziona zeina errekerimendurekin galdegin izan baitzuen. Sei orenetako inguruan, Jaun Dauphinak galdu izan zuen hitza, eta eztzuen mobimendurik ezpainetan baizen. Erabiltzen zituen niri konpreniarazteko aditzen ninduela. Oren erdi hartan, ezaguzaren seinalerik eztzuen eman. Hirugarren aldikotzat, nigar eta auhenpean, erran izan ziren hagoniako othoitzak; diot hirugarren aldikotz, ezen bezperan eguerditan Jaun Aumonier handiak erran izan zituen gelako guzien aitzinean Jaun Duphinak ihardetsten zuelarik han ziren guziekin; trikarazi ere zituen moment bat ondoan atenzione gehiagorekin segi zetzantzat.

Printze hau zeinaren bizia merezimenduz eta obra onez betha baitzen, eztiki lokhartu zen Jainkoa baithan ortzilarearekin, abendoaren 20ean 1765ean goizeko kortzi orenen ingurutan, uzten diozkolarik Franzia guziari berthutezko exenplurik handienak, eta denbora berean, erregretarik justuenak.